

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN ARAUDIAK

Elkartearen helburua eta egitura

1. artikulua

1990ean Euskal Herrian antolatu zen irabazirik gabeko elkarte, 1901eko legearen arabera, "Institut Culturel Basque - Euskal Kultur Erakundea" deritzona, idazki honetan "EKE" izendatua. Mugarik gabeko iraupena du, salbu araudi honetako 20. atalean agertzen diren baldintza bereziak.

2. artikulua

EKEren egoitza Uztaritzen, Pirinio Atlantikoetan, finkatua da. Beste leku batera alda daiteke administrazio kontseiluaren erabakiz.

3. artikulua

EKEren eragina eta jarduera bereziaren eremua hedatzen da "Pays Basque" derizon lurraldean. Gainera ekintzak bultzatzen dituzte eskualde mailan, Estatuan eta nazioartean.

4. artikulua

Elkarte honen helburua da euskal kulturaren sustapena, garapen iraunkorra eta hedapena, denbora berean jarraipena eta bilakaera segurtatuz. Bere eragina zabalduko da eremu hauetan:

- euskara,
- literatura eta argitalpena,
- antzerkia eta bertsolaritza,
- ikus-entzuegien ekoizpena eta hedapen numerikoa,
- dantza, kantua eta musika,
- arte ederrak,
- ondarea eta ingurumena,
- turismoa eta sukaldaritza,
- euskal bestak, aisialdiak, jokoak eta kirolak.

5. artikulua

Elkartearen eginbide nagusiak hauek dira :

- kultura politika publikoari buruzko obragintza laguntzea,
- egitasmoen obralaritza tokiko eta lurraldeko elkargoen partaidetzarekin,
- egitasmo egituratzaileen obralaritza eta publiko berriei buruzko bitartekaritza,
- kultura eragileen aldeko laguntza, sorkuntza, hedapen, animazio eta formazio alorretan;

6. artikulua

Elkarteak ez du sinesmen edo politika iritzirik adierazten eta bere eginbidei jarraitzen da politika, filosofia eta erlazio mugimenduen bazterretik.

7. artikulua

Elkartean bi kolegio daude :

a) erakunde bazkideen kolegioa, hala nola :

- Estatua,
- Akitania-Berriko eskualde kontseilua,
- Pirinio Atlantikoetako departamendu kontseilua,
- Euskal Hirigune Elkargoa,
- Euskal Autonomia Erkidegoko kultura saila.
- Nafarroako Foru Erkidegoko euskara saila.

b) kultura eragileen kolegioa, hala nola :

- euskal kulturaren alorrean diharduten elkarteak eta beste egiturak,
- euskal kulturaren alorrean ezagunak diren pertsona kalifikatuak.

Bazkide izateko kultura eragile batek administrazio kontseiluaren onarmena behar du. Urte saria biltzar nagusiaren erabakiz finkatua da.

8. artikulua

Bazkidegoa galtzen da :

1. kargua utziz eta gutun bat igorritz administrazio kontseiluburuari ;
2. administrazio kontseiluak kanporaketa erabakitzen duelarik urte saria ez delakotz ordaindu edota kalte handi batengatik, salbu biltzar nagusiari hel egiten bazaio. Kanporatzer dena argibideak emaitera gomitatuko da, mintzatuz edo idatziz, administrazio kontseiluaren aitzinean, erabakia hartu baino lehen.

9. artikulua

Biltzar nagusiko partaideak 7. artikuluan aipatu bazkideak dira, bakoitza boz batekin. Bazkide batek ezin du eraman bi ordezkari bako bako gehiago. Gainera biltzar nagusira gomitatzen dira euskal hirigune elkargoko kultura ordezkariak eta Euskal Herriko auzapezak.

Biltzar nagusia gutienez urtean behin elgarretaratzen da eta administrazio kontseiluak deitzen duen aldi oroz edo bazkideen gutienez laurdenak eskaturik.

Administrazio kontseiluak finkatzen du aipagai zerrenda.

Biltzar nagusiak iragan urteko kontuak eta ekintzen txostena onartzen ditu, urteko kultura egitasmoaren jakinean ematen da, zerrendan dauden aipagaiak eztabaidatzen ditu eta, beharrez, administratzaileak berritzen. Ekintzen txostena eta kontuak urte oroz bazkide guzietan igortzen zaizkie.

Biltzar nagusirako deiak gutunez igorriko dira, bederen 15 egun bilkura baino lehenago, beharrezko dokumentuekin. Biltzar nagusia prentsaren bidez ere meztuko da epe berean. Elkarteko langile ordainduak biltzar nagusian parte har dezakete, 12. artikulua finkatzen dituen baldintzetan.

Biltzar nagusiak zuzenez erabaki dezake gutienez bazkideen herena etorriak edo ordezkariak direlarik. Quoruma eskas bada, biltzar nagusia berriz deituko da eta orduan zuzenez erabaki dezake etorriak eta ordezkariak direnekin. Gehiago soilak erabakitzen du.

Ohizko biltzar nagusiak barne araudia onar edo alda dezake.

Administrazioa eta funtzionamendua

10. artikulua

Administrazio kontseiluak kudeatzen du elkartea. Biltzar nagusiak finkatzen du administratzaileen kopurua, gorenaz 21 kide.

Bazkideza mota bakoitzak izendatzen ditu kontseilukideak, hala nola

a) 10 bazkide erakundeen kolegiotik

- Estatuaren 2 ordezkari, Pirinio Atlantikoetako prefeta edo bere ordezkoa, Kultura gaietarako eskualde zuzendaria edo bere ordezkoa,
- 2 ordezkari Akitania-Berriko eskualde kontseilutik,
- 2 ordezkari Pirinio Atlantikoetako departamendu kontseilutik,
- 2 ordezkari Euskal Hirigune Elkargotik,
- ordezkari bat Euskal Autonomia Erkidegoko kultura sailetik.
- Ordezkari bat Nafarroako Foru Erkidegoko euskara sailetik.

b) 11 bazkide kultura eragileen kolegiotik, biltzar nagusira etorri diren kolegio bereko kideek hautaturik.

Norbaitek huts egiten badu, kontseiluak behin-behineko ordezkaria hauta lezake. Ondoko biltzar nagusiak izendatuko du behin-betiko ordezkaria. Molde honetan hautatuak direnak, kontseilukide egonen dira ordezkatzeko dituztenen epea buratu arte.

Administrazio kontseilua osoki berritzen da epea bururatzen delarik. Epea hiru urtekoa da. Ateratzen diren administratzaileak berriz hauta daitezke.

11. artikulua

Administrazio kontseilua berritzen den aldi oroz, bulegoa hautatzen du bere kideen artean:

- elkarteburua,
- 1 edo 2 elkarteburuorde,
- diruzaina eta diruzainordea.
- idazkaria eta idazkariordea.

Bulegokideak hautatuak dira administratzaile diren eperako. Zuzendariak bulego bilkuretan aholkulari bezala parte hartzen du, baina bera delarik mintzagai ezin du parte hartu.

Bulegoa printzipioz biltzen da elkarteburuak deitzen duen aldi oroz. Erakundeen kolagioko bazkideek ezin dituzte hartu elkarteburu, diruzain eta idazkari funtzioak. Mintzagai berezi baten kasuan, bulegoak edozein pertsona gomita dezake, haren lankidetzara onuragarri balin bazaio. Bulegoak prestatzen eta sustatzen ditu administrazio kontseiluaren lanak.

12. artikulua

Administrazio kontseiluak EKEren norabide nagusiak erabakitzen ditu, behar diren balibideak biltzen eta finkatuak diren helburuen gauzatzeari kasu ematen.

Administrazio kontseiluak lan-taldeak eta gogoetaldiak antola ditzazke proposamenak lantzeko EKEren funtzio nagusiei buruz.

Hona nolakoa den administrazio kontseiluaren funtzionamendua :

administrazio kontseilua biltzen da, bederen hiru hilebetero, eta elkarteburuak deitzen duen aldi oroz edota kideen laurdenak eskaturik. Deiak igorriko dira bilkura baino 15 egun lehenago.

Bulegoak finkatzen du aipagaien zerrenda. Nakitaez mintzagai dira kontseiluaren laurdenak edo zuzendariak eskatzen dituzten eztabaidak. Elkarteburuak edo zuzendariak proposaturik, administrazio kontseiluak edozein pertsona gomita dezake mintzagai berezi bat argitzeko, haren lankidetzaz onuragarri bazaio.

Bi bilkura segidan mezurik gabe huts egiten dituenak dimisioa ahapetik emana balu bezala kontsideratua da eta abisua emanen zaio.

Kontseiluak erabaki dezake gutienez kideen erdiak etorri edo ordezkatuak izanez. Ezin etorria dena beste kontseilukide batek ordezkari dezake. Bainan kontseilari bakoitzak beste eskubide bakar bat har dezake bakarrik. Quorumaren eskasez administrazio kontseilua 8 egun berantago biltzen da eta orduan etorri direnek eta ordezkariak erabakitzen dute, kopurua edozein izanez. Etorriak ala ordezkariak diren kontseilarien gehiengo soilak erabakitzen du.

Bilkuren laburpenak idatzi behar dira. Kontseiluburuak eta idazkariak izenpetzen dituzte txosten horiek. Lerro hutsik eta zirri-marrarik gabe idatziko dira, orrialdeak zenbatuz eta elkartearen egoitzan atxikiko.

13. artikulua

Administratzaileak ez dira ordainduak beren karguarentzat. Eginkizun eta pidaia gastuak bakarrik ordain daitezke. Egiaztapenak ekarri eta kontrolatu behar dira. Administratzailei eta kontuen ikuskatzaileari ordaintzen zaizkien gastuak aipatu behar dira, biltzar nagusiari aurkezten zaion kontu txostenean.

Elkarteburuak elkarteko langile soldatadunak gomita ditzazke biltzar nagusiaren eta administrazio kontseiluaren bilkuretaraz aholkulari bezala.

14. artikulua

Administrazio kontseiluak zuzendari lanposturako hautagaitzak biltzen ditu eta aztertzen.

Euskal Kultur Erakundeko zuzendari lanpostua funtzionario batek har dezake zerbitzu berezi moldean.

Administrazio kontseiluak azterten ditu hautagaien kultura garapenerako egitasmoak eta zuzendaria izendatzen du. Izendapen honek Kultura ministroaren onespenez ardietsi behar du.

Administrazio kontseiluren erabakia eta kulturaz arduratzen den ministroaren onespenez oinarrituko dira eremu artistiko eta kulturalari buruzko gaitasunetan, araudi honen 4. atalean zehaztuak diren bezala.

Kultura eragileak entzun ondoren eta talde profesionalarekin elkarlanean, zuzendariak kultura egitaraua antolatzen du administrazio kontseiluaren norabidei jarraikiz.

Elkarteburuak ematen dio EKEren ohizko kudeantzarako behar dituen eskubideen ordezkariak, aitzinkontua gainditu gabe.

Berak du langileria osoa hautatzeko eta kudeatzeko ardura. Elkarteburuaren ordezkariak badu soldatadunen kontraktuak izenpetzeko.

Administrazio kontseiluaren aitzinean erantzuten du garapen kultural eta artistikorako egitasmoaren obragintzaz eta urteroko ekintzen egitarauaz.

Aholkulari bezala, elkartearen egitura erabakitzaileetan parte hartzen du, bai eta ere finantza batzordean, salbu bere egoera aipagai delarik.

15. artikulua

Finantza batzorde bat antolatua da, barne direlarik erakundeen kolegioko bazkideak edo hauen ordezkariak, elkarteburua eta diruzaina.

Biltzen da bazkide batek eskatzen duelarik eta gutienez urtean behin. Aitzinkontuak eta elkartearen diru oreka alda dezaken edozein erabaki indarrean jartzen dira finantza batzordeak onartuz gehiengo soilean. Kudeaketa kontua ere haren onarpenaren menpe da.

16. artikulua

Elkarteburuak elkarte ordezkatzen du bizitza zibileko akta guzietan. Gastuen ordainketa manatzen du. Ordezkapena eman dezake araudian finkatuak diren baldintzetan.

Justiziaren aitzinean ordezkatua izateko, elkarteburuak prokurazio berezi bat eman behar dio bere eskudunari.

Hornidurak, urteroko baliabideak

17. artikulua

Elkartearen diru-sartzeak hauek dira :

1. ontasunaren irabaziak;
2. bazkideen urtesariak eta ordainsariak;
3. Estatuaren, lurralde elkargoen, egitura publikoen eta pribatuen diru-laguntzak,
4. dohainik eskuratu ekoizpenak eta legeak debekatzen ez dituen baliabide guziak, urtean zehar erabiltzeko baimena balin bada;
5. salbuezen moldean sortu diren baliabideak eta, beharrez, agintari eskudunaren baimenarekin;
6. banatu diren zerbitzuen ordainketen mozkinak eta urteko ekintzek ekoizten dituzten baliabideak.

18. artikulua

Kontularitza bat urtero eginen da, agertuko baititu ustiapen kontua, finantza-aldiaren emaitzak eta bilana, biltzar nagusiak izendatu kontu mandatariak egiaztatuko duena.

19. artikulua

Elkartearen ontasunak du bakarrik ihardesten izenpetu dituen kontratuentzat, batzarkideetan nehor ez delarik bere ontasunarekin erantzule, edozein mailako karguak ukanikan ere.

Araudiaren aldaketa eta amaiera

20. artikulua

Biltzar nagusiak araudia alda dezake, administrazio kontseiluak proposaturik edo biltzar nagusian dauden batzarkideen hamarrenak eskaturik.

Kasu batean edo bestean, aldaketa proposamenak urrengo biltzar nagusiko mintzagaietan sartuak dira eta batzarkide guziei igorriak 15 egun lehenago.

Biltzarrera etorriko dira gutienez aribidean diren bazkideen laurdena. Hein horretara ez badira heltzen, biltzarra berriz deituko da et orduan erabaki dezake edozein izan dadin bazkideen kopurua.

Kasu guzietan, araudia aldatzeko, parte-hartzaileen eta ordezkatuena bi hereneko gehiengo behar da.

21. artikulua

Elkartearen desegitea erabakiko duen biltzar nagusia hortarako bereziki deitua da, aitzineko atalaren baldintzetan, eta gutienez ari diren bazkideen erdia gehi bat bildu behar ditu.

Desegitea partehartzaileen eta ordezkatuena bi herenen bozkarekin baizik ezin da gertatu.

22. artikulua

Elkartearen desegitea erabakitzen bada, biltzar nagusiak ontasunen banaketa egingen du. Ikuskatzaile bat edo gehiago izendatzen ditu elkartearen ontasunak despeditzeko eta mozkinak emateko helburu bereko beste elkarte bati edo batzuri.

Horiek hola diru laguntzak eman dituzten kolektibitatei itzuliko zeie iragan epearen arabera, edo bestenez, hautatua den erakundeak balia lezake, diru laguntza emana zuen kolektibitatearen baimenarekin.

Desegin aitzin elkarteak bururatuko ditu, legeari eta araueri jarraikiz, pertsona fisiko edo moralekin hartu hitzarmenak eta kontratuak. Estatua eta lurralde elkargoak ez dira neholara ere zordun izanen beste nehoari, elkartearen amaiera aitzin hartu hitzarmenengatik.

23. artikulua

21, 22, 23. artikuluetan aipatuak diren erabakiak, Barne ministroari eta Kultura ministroari berehala igorriko zaizkie. Indarrean izanen dira gobernuak onetsi ondoren.

Ikuskaritza eta barne araudia

24. artikulua

Elkarteburuak, hiru hilabete barne, elkartearen administrazioan ala zuzendaritzan gertatu diren aldaketa guziaz jakinaziko dizkie elkarte kokatua den departamenduko prefetari edo barrutiko suprefetari.

25. artikulua

Elkarteak barne araudi bat antola dezake, administrazio kontseiluak proposaturik eta biltzar nagusiak onarturik.

Azken gaurkotzea 2019ko apirilaren 6an.